

Berrizko Foroaren Akta

Acta del foro de Berriz

Data/Fecha:	Ordua/Hora:	Lekua/Lugar:
20/11/2013	20:10-21:50	Udaletxe Pleno Aretoa / Salón de Plenos del Ayuntamiento

Udaletxea/Ayuntamiento	Herritarrak/Ciudadanía	Aholkularitza enpresa/Empresa consultora
<ul style="list-style-type: none"> Rolando Isoird (Alkatea/Alcalde) Aitor Agirre (Zinegotzia/Concejal) Francisco José del Pino (Zinegotzia/ Concejal) Josu Albizuri (Zinegotzia/ Concejal) 	<ul style="list-style-type: none"> 44 herritar / 44 ciudadanos 	<ul style="list-style-type: none"> Juanjo Allur (Siadeco) Loinaz Azurmendi (Siadeco)

1. Ongietorriak eta foroari sarrera

Alkateak, sarrera modura, hasiera ematen dio Foroari bertaratuei ongietorria egin eta eskerrak emanaz euren asistentziagatik. Aurrekontu parte-hartzaileen prozedura honetan Berrizko herritarrek erabakiko dutela inbertsioen partidako 60.000 euro zertarako erabili adierazten du alkateak. Gainera, aurtengo ekimenaren emaitzak ikusi ondoren hurrengo urteetan ere jarraipena emateko aukera badagoela diotsu alkateak. Hitza ematen die jarraian, aholkularitza enpresako kideei, saioaren dinamizazioari ekiteko.

Aholkularitza enpresako teknikariak parte-hartze saioaren testuinguraketa egiten du; Durango Merinaldearen Amankomunazgoaren enkarguz, Siadeco enpresa arduratuko da egingo diren bi saioen dinamizazioaz eta prozedura guztiaren koordinazio teknikoaz, Berrizko Udalarekin elkarlanean.

2. Partehartze prozeduraren testuinguraketa

Hurbilpen bat eginez, aurrekontu parte hartzaileen inguruko hainbat xehetasun aipatzen ditu aholkularitza enpresako ordezkariak:

- Udal aurrekontuen elaborazioan herritar guztiei parte-hartzeko aukera ematen dien parte-hartze prozesua da.
- Herritarrak protagonista aktibo bihurtzeko, hausnarketa aktiboa eta solidaritatea sustatzeko, behar errealei irtenbidea bilatzeko, administrazio eta herritarren arteko komunikazioa hobetzeko, etab. balio dute.
- Borondate politikoa, gardentasuna, aztergai jarriko diren udal aurrekontu partidak erabakitzea, herritarren inplikazioa, joko arauak zehaztea (auto-arautegia) eta prozesuan lortutako adostasunekiko bermea dira prozedurak arrakasta izateko oinarriko baldintzak.

1. Bienvenida e introducción al Foro

El Alcalde, a modo de introducción da comienzo al foro dando la bienvenida y las gracias a los asistentes a la sesión. Subraya que los habitantes de Berriz, participando en estas dos sesiones de presupuestos participativos serán los que decidan a qué se van a destinar 60.000 euros de la partida de inversiones del Ayuntamiento. Indica además, que, una vez valorados los resultados de este procedimiento piloto, se ve la posibilidad de darle continuidad en los próximos años. Seguidamente, cede la palabra a los miembros de la empresa consultora para comenzar con la sesión.

El técnico de la empresa consultora contextualiza el encuentro dentro del marco de Presupuestos Participativos del Ayuntamiento de Berriz; por encargo de la Mancomunidad de la Merindad de Durango, será la empresa Siadeco la encargada de dinamizar las dos sesiones de participación y de coordinar todo el proceso, junto con la colaboración del Ayuntamiento de Berriz.

2. Contextualización del proceso participativo

A modo de **aproximación**, el técnico consultor menciona una serie de aspectos importantes en torno al proceso de presupuestos participativos:

- Los presupuestos participativos son una forma para la participación ciudadana mediante la cual todos/as pueden participar en la elaboración del presupuesto municipal.
- Sirven para convertir a la ciudadanía en protagonista activa, fomentar la reflexión activa y la solidaridad, buscar soluciones a necesidades reales, mejorar la comunicación administración-ciudadanía, etc.
- Las condiciones básicas para que el proceso se desarrolle con garantías son: voluntad política, transparencia, decidir qué partidas del presupuesto municipal se someten a debate, implicación de la ciudadanía, definición de las reglas de juego (autorreglamento) y garantías para los acuerdos alcanzados en el proceso.

- Maniobra marjina murriztu dezaketzen finantza-eskasia eta lege-mugak dira egiturazko mugak.
- Berrizko Udalean martxan jarritako lehen esperientzia pilotua da honakoa.

Aurrekontu parte-hartzailearen **zikloa** deskribatuz, **maila desberdinetako ekintzak** aipatzen ditu jarraian (maila politikoa, teknikoa eta herritarren partehartzea). Horrezaz gain, ospatuko diren bi foroak nola egituratuko diren ere adierazten da:

► Lehen foroa:

1. Zatia: prozesua azaldu (auto-arautegia).
2. Zatia: Berrizko udal aurrekontuak.
3. Zatia: Udalak antzemandako beharren argazkia.
4. Zatia: herritarren proposamenak biltzeko prozesua abiatu.

► Bigarren foroa:

1. Zatia: herritarrek egindako proposamenak aurkeztu.
2. Zatia: proposamenak lehenesteko prozesua onartu.
3. Zatia: proposamenak lehenesteko prozesua garatu (balorazioa eta bozketa)
4. Zatia: behin betiko akordioa lortu exekutatu beharreko proposamenen inguruan

3. Prozeduraren auto-arautegia edo jokorako arauak

Aholkularitza enpresako kideak prozeduraren inguruko “arauak” azaltzen ditu:

- Herritarren parte-hartze prozesura jarritako udal aurrekontuaren aurrekontu partida eta izaera:
 - Partida: 60.000 €
 - Izaera: inbertsioen kapitulua.
 - Inbertsioak obra edo herri lanak dira, berriak edo lehendik egindakoen mantenturako egin beharrekoak; adibidez berdegune berri bat egitea edo kale bat berriztatzea. Inbertsioak, Udalak egin ditzakeen izaera iraunkorreko erosketak ere izan daitezke, adibidez, ibilgailu bat erostea edo hondakinentzako edukiontzia erostea. Inbertsioak ez dira beraz, ez jarduerak, ez zerbitzuak, ezta dirulaguntzak ere.
- Behin txosten teknikoak eginda, inbertsio publikoen eremutik kanpo gera daitezkeen proposamenenak nola tratatu planteamendua ondorengoa da: euren ardura duten sailetara bidaliko dira, balora ditzaten.

- La escasez financiera y restricciones legales que reducen el margen de maniobra son los límites estructurales.
- Se trata de la primera experiencia piloto del Ayuntamiento de Berriz.

Se hace una descripción del **ciclo** de los Presupuesto Participativo y se mencionan las acciones de los **distintos niveles** existentes (nivel político, nivel técnico y nivel de participación ciudadana). Además, se presenta la estructura del contenido de los dos foros que se celebrarán:

► Foro uno:

- 1ª parte: explicación del proceso (autorreglamento).
- 2ª parte: presupuestos municipales de Berriz.
- 3ª parte: fotografía de las necesidades detectadas desde el Ayto.
- 4ª parte: apertura del proceso para la recogida de propuestas de la ciudadanía.

► Foro dos:

- 1ª parte: presentación de las propuestas realizadas por la ciudadanía.
- 2ª parte: aprobación del método-proceso para la priorización de propuestas.
- 3ª parte: proceso de priorización de propuestas (valoración y votación).
- 4ª parte: acuerdo final sobre las propuestas a ejecutar

3. Auto-reglamento o reglas de juego del proceso

El técnico de la empresa consultora menciona las “reglas de juego” de proceso:

- Partida presupuestaria y naturaleza del presupuesto municipal que se somete a debate de la ciudadanía:
 - Partida: 60.000 €
 - Naturaleza: capítulo de inversiones.
 - Las inversiones son “obras”, tanto nuevas como de mantenimiento de las que ya hay, por ejemplo la construcción de un jardín o la mejora de calles. Además de obras, las inversiones también pueden ser “adquisiciones permanentes” del ayuntamiento, como por ejemplo la compra de un vehículo o de contenedores de residuos. Las inversiones no se refieren a actividades, ni a servicios, ni a subvenciones.
- El planteamiento para el tratamiento de las propuestas que tras la elaboración de informes técnicos, queden fuera del ámbito de las inversiones públicas, es el siguiente: serán enviadas a las distintas áreas responsables de llevarlas a cabo para su valoración.

- Proposamenak iturburu ezberdinak izan ditzakete: lurraldearen (auzoen) eta sektoreen (merkataritza, hirigintza, kultura...) logika uztartzea da egokiena. Ondorengo helburuarekin, ideia edo ekimen orok prozesuaren barnean lekua izango duela bermatzea.
- Prozesuan parte hartu dezaketen pertsonak dira: Erroldatutako pertsonak + Berrizen erroldatuta ez egon arren, bertan jardueraren bat (merkataritza, enpresetan, elkarteren batetan, etab.) garatzen duten pertsonak.
- Parte-hartzaileak identifikatu egingo dira, bileretako partaide modura eta inbertsioetarako proposamen egile modura.
- Bertaratutako gutxieneko kopurua, bilera baliozkoa izan dadin: 30 pertsona (biztanleriaren %0,6).
- Proposamenek bete beharreko ezaugarriak: Inbertsio berri batekin lotutakoak behar dute izan; edo egungoen mantentze eta konpontze lanekin lotutakoak.
 - a). Izaeraz konkretuak eta zehatzak izango dira; eta ekonomikoki ebaluagarriak.
 - b). Kokapena zehaztuko da (titularitate publikokoa).
 - c). Inbertsioek udal eskumenekoak izan beharko dute.
 - d). Interes orokorrak, interes partikularren aurretik ipini behar dira proposamenak egiterakoan.
- Proposamenak exekutatzeko epea: urte anitzeko izaera izan dezakete.
- Proposamenak aurkezteko modua:
 - a). Proposamenaren ezaugarri nagusiak bilduko dituen fitxarekin batera aurkeztuko dira.
 - b). Ezinbestekoa ez den arren, proposamenaren egileak identifikatzea aholkatzen da, aurrerago edozein zalantza argitu ahal izateko.
 - c). Partaide bakoitzak proposamen bat baino gehiago egin ahal izango du.
 - d). Fitxak bilerara bertaratuta aurkeztu ahal izango dira.
- Proposamenak lehenesteko bi aukeren artean erabaki beharko dute partehartzaileek, A aukera eta B aukera.

A AUKERA : Proposamenak baloratu eta zuzenean bozkatu.

- Behin txosten tekniko eta ekonomikoen dokumentazioa landuta, inbertsio publiko gisa onartutako proposamenak, parte hartzaileek baloratuko dituzte banaka; proposamen bakoitzaren ezaugarriak baloratu eta herritarrek egindako proposamen guztiak lehentasunaren arabera sailkatuko dituzte.
- Parte hartzaile bakoitzak, lehentasunezkoak kontsideratzen dituen proposamenen erdiak hautatuko ditu; boto bat hautatutako proposamen bakoitzeko, ondorengo mugarekin: parte hartzaile bakoitzak, gehienez, berak aurkeztutako proposamen bakarra sar dezake bere zerrendan.

- En cuanto a las fuentes de las propuestas, se plantea combinar la lógica territorial (barrios) y sectorial (comercio, urbanismo, cultura...). Con el objetivo de garantizar que cualquier idea o iniciativa disponga de un espacio dentro del proceso.
- Las personas que podrán participar en el proceso son: Personas empadronadas + personas que sin estar empadronadas desarrollan en Berriz algún tipo de actividad (comercial, empresarial, asociativa, etc).
- Las personas participantes serán identificadas, tanto como asistentes a la asamblea como proponentes de propuestas de inversión.
- El número mínimo de personas para que la asamblea sea válida: 30 personas (0,6 % de la población).
- Características que deben cumplir las propuestas: Deberán referirse a una inversión nueva, o bien a obras de mantenimiento y reparación de las actuales.
 - a). Su carácter será concreto, determinado y evaluable económicamente.
 - b). Deberá definirse la ubicación (de titularidad pública).
 - c). Las inversiones deberán ser de ámbito competencial local.
 - d). El interés general deberá prevalecer sobre el interés particular
- Plazo para la ejecución de las propuestas: podrán tener un carácter plurianual.
- Forma de presentación de las propuestas:
 - a). Será necesario que se acompañen de una ficha que contemple sus principales características.
 - b). No será necesario, sí recomendable que se identifiquen los y las proponentes a fin de aclarar posteriormente cualquier duda.
 - c). Cada participante podrá realizar más de una propuesta.
 - d). Las fichas se deberán presentar presencialmente en la asamblea.
- Los asistentes a los foros deberán decidir sobre la forma de priorización de las propuestas, entre la opción A y la opción B.

OPCION A: Valoración y votación directa de las propuestas.

- A partir de las propuestas aceptadas como inversión pública, y ya con la documentación de los informes técnicos y económicos, de forma individual cada participante valora las características de cada propuesta en su totalidad y establece el orden de prioridad del conjunto de iniciativas ciudadanas.
- Cada participante elegiría la mitad de las propuestas presentadas que considerara prioritarias, a razón de un voto para cada una de las propuestas seleccionadas, con la siguiente autolimitación: cada participante puede incluir en su lista, como máximo, una propuesta presentada por él/ella.

- Honela, proposamenen zerrenda, jasotako botoen arabera ordenatuta ageriko da; boto gehien jaso dituen lehena, eta gutxi jaso dituen azkena. Hurrenkera honetan onartuko dira, erabili daitekeen aurrekontua amaitu arte.(60.000 €).

B AUKERA: Banaketa justurako irizpideekin egindako baloraketa.

- Aukera honek talde mailako gogoeta egitea bilatzen du, eskaera edo proposamen guztiek bete beharko luketen irizpideen inguruan.
- Ohikoenak ondorengoak dira:
 - Herritarren funtsezko beharrei erantzutea (ura, argia, etab.).
 - Udalerrri osoarengan eragitea (herri mailako inbertsioa).
 - Ingurugiro mailako irizpideei erantzutea.
 - Proposamenarekin onura lortuko duten herritar kopurua.
 - Proposamen berean kolektibo ezberdinen inplikazioa.
 - Behar bereziak dituzten kolektiboek erantzutea.
 - Antzeko inbertsioak jada ez egotea..
 - Herritarren partehartzea ri mesede egitea.
- Adierazitako irizpide bakoitzarentzat proposamenen balorazioa egiteko eskala bat erabiliko da (1- ez dio batere erantzuten; 2- gutxi erantzuten dio; 3-nahikoa erantzuten dio; 4- guztiz erantzuten dio).
- Banaketa justu baterako irizpideetatik abiatuta, jasotako proposamenetan lehentasunaz zehazten dira, proposamen bakoitzak lortutako guztizko puntuaketa kontuan hartuta.

- Queda así ordenada una lista de propuestas que comienza por la más votada y termina por la menos votada, aprobándose por el orden establecido las propuestas hasta que se agote el presupuesto disponible (60.000 €).

OPCION B: Valoración con criterios de justicia distributiva.

- Esta opción busca una reflexión colectiva sobre la consideración de criterios que deberían estar presentes en cualquier iniciativa.
- Los más comunes son:
 - Que atiende a necesidades básicas de la población (agua, luz, etc.).
 - Que tenga aplicación para toda la ciudad (inversión de ciudad).
 - Que atiende a criterios medioambientales.
 - El número de personas que se verán beneficiadas por la propuesta.
 - La implicación de varios colectivos en la propuesta.
 - Que atiende a colectivos con necesidades especiales.
 - Que no existan ya inversiones previas o similares.
 - Que favorezca la participación de la ciudadanía.
- Para cada uno de los criterios se genera una escala en las que podamos puntuar las propuestas en cada ítem (1-no lo satisface en absoluto; 2-lo satisface poco; 3- lo satisface bastante; 4- lo satisface totalmente).
- A partir de la aplicación de criterios de justicia distributiva, se prioriza la lista de propuestas, teniendo en cuenta la puntuación total que ha obtenido cada propuesta.

4. Berrizko Udal aurrekontuen egitura

Aholkularitza enpresako kideak hitza ematen dio Alkateari eta Udal aurrekontuen egitura azaltzeari ekiten dio. Izan ere, inbertsioetarako proposamenak egin aurretik, garrantzitsua ikusten da herritarrek aurrekontuen egitura ezagutzea.

Aurrekontu horien inguruko daturik esanguratsuenak ondorengoak dira:

- Udaleko gastu aurrekontua guztira: 5.097.000 euro.
- Horietatik ia 2 milioi lehen kapituluko pertsonal gastuetarako izan dira. 2012tik 2013ra 200.000 euro gutxiago bideratu dira gastu horretara, zuzeneko pertsonala kontratatzeke debekuak sortua.
- Bigarren kapitulua, zerbitzuen mantenuari dagokiona, 2,5 milioikoa 2013an, 2012an baino 100.000 euro gutxiago.
- Laugarren kapituluan, transferentzietarako dagokiona, 527.000 euro 2013an, 2012arekiko jaitsiera txiki batekin.

4. Estructura del presupuesto municipal de Berriz

El técnico de la empresa consultora cede la palabra al Alcalde para que éste explique la estructura general de los presupuestos del Ayuntamiento. De hecho, se considera imprescindible que los ciudadanos conozcan los presupuestos para poder hacer sus propuestas de inversión.

Los datos más significativos que remarca son los siguientes:

- Presupuesto de gasto total del Ayuntamiento: 5.097.000 euros.
- De los cuales, casi 2 millones se destinan a financiar gastos de personal del primer capítulo económico. Entre 2012 y 2013 la cantidad destinada a este gasto ha disminuido en 200.000 euros debido a la imposibilidad de contratar directamente.
- Los gastos para el capítulo dos, de 2,5 millones, 100.000 euros menos que en el 2012.
- Para el capítulo 4, 527.000 euros en 2013, con una pequeña disminución respecto del 2012.

- Sarreren inguruan, 2012tik 2013ra jaitsiera nabarmena dago Bizkaiko Foru Aldundiak Berrizko Udalari egindako ekarpenean, 3 milioitik 2,6 milioitara jaitsi delarik. Gainontzeko sarrerak (tasak eta zergak) bere horretan mantendu dira.
- Udalaren zorra, obrak egiteko kredituengatik; 339.000 euroko zorra 2012an eta 2013an 174.000 eurokoa.
- Arloka, hirigintza, obrak, zerbitzuak eta ingurunea da aurrekontuetan pisu gehien hartzen duen arloa, 1.792.000 euroekin, (%35), eta horietatik 966 mila euro mantentze gastuak dira. Kirola, hezkuntza eta gazteriak %18ko pisua hartzen du; kultura, euskara eta jaiak-ek %13; gizarte ekonomia eta garapena %13 eta administrazio orokorrak beste %13; zor publikoak %4 eta gobernu organoetarako gastuak %3a.
- Udalaren zor publikoa aztertuta, esan 2003an Udalak eskatutako 3 kredituen amortizazioekin jarraitzen da. 2014rako ordainketa 133.000 eurokoa izatea aurreikusten da.
- Inbertsioetarako aurrekontua, 2012an 57.000 eurokoa izatetik 2013an 192.000 eurokoa izatera pasa da. Aurrekontuetan jaitsiera izanda ere inbertsioen partida igotzeko esfortzua egin du Udalak.

Egoera honen aurrean, 60.000 euro bideratuko direla aurrekontu parte-hartzaileetara adierazten du alkateak eta dei egiten die bertaratuei eskaerek izan dezatela ahalik eta interes orokorrenari erantzuteko izaera.

5. Inbertsioetarako Udaletik antzemandako beharrak

Azalpen horien ondoren, bertaratuen artean banatu da Udalak jada antzemanda dituen beharren zerrenda, dagokion aurrekontu ekonomikoarekin. Zerrenda honek ez du baldintzatu behar herritarren parte hartzea baina informazio hori ere herritarren esku jartzea egokia kontsideratu da.

Akta honen eranskin modura jasotzen da zerrenda hori.

6. Herritarren parte-hartzearen emaitzak

Saioa bertaratutako herritarrak taldeka bildu dira jarraian eta aholkularitza enpresak prestatutako fitxak banatu zaizkie talde barruko lana egiten hasteko. 20 minutuz bilduta egon ondoren talde bakoitzeko bozeramaileari eskatu zaio talde horretan ateratako proposamenak aipatzeko.

- En cuanto a los ingresos, entre 2012 y 2013 ha habido una disminución en la aportación realizada por la Diputación Foral, de 3 millones a 2,6 millones. Las demás fuentes de ingreso se han mantenido a la par.
- La deuda pública del Ayuntamiento, debido a los créditos a amortizar para diversas obras, fue de 339.000 euros en 2012 y de 174.000 euros en 2013.
- Por áreas, el área de urbanismo, obras y servicios y medio ambiente, con 1.792.000 euros, es la que mayor peso adquiere (con un 35% del total); de los cuales 966 mil euros se destinan a financiar gastos de mantenimiento de los servicios. Cultura, euskera y fiestas alcanza un peso relativo del 18%; economía social y desarrollo un 13% y la administración general otro 13%; la deuda pública alcanza un 4% y los gastos de órganos de gobierno un 3%.
- Analizando la deuda pública del Ayuntamiento, continúa la amortización de 3 créditos solicitados en 2003. Para el 2014 se prevé que la cuota de amortización se de 133.000 euros.
- El presupuesto destinado a las inversiones, para de ser de 57.000 euros en 2012 a ser de 192.000 euros en 2013; aun habiendo disminuido el presupuesto total, el Ayuntamiento ha hecho un esfuerzo para fortalecer dicha partida.

Ante esta situación, 60.000 euros de la partida de inversiones serán los destinados a los presupuestos participativos y el alcalde solicita a los asistentes que procuren que sus peticiones respondan, a poder ser, al interés general de los vecinos del municipio.

5. Necesidades de inversión detectadas desde el Ayuntamiento

Tras las explicaciones sobre los presupuestos, se ha repartido entre los asistentes una ficha en la que se reflejan las necesidades de inversión que el Ayuntamiento tiene detectadas y su partida presupuestaria. Dicho listado no se entrega con el objetivo de condicionar la participación ciudadana, pero se ha considerado importante trasladar la información a los ciudadanos.

El listado entregado se recoge como anexo a esta acta.

6. Resultados de la participación ciudadana

Seguidamente, los asistentes a la sesión se han agrupado, y en base a la ficha para la recogida de propuestas elaboradas por la empresa consultora, han comenzado con el trabajo en grupo. Al cabo de 20 minutos, se les ha pedido a los interlocutores de cada grupo que mencionen sus propuestas.

Proposamenak aztertu eta sailkatuta, honakoak izan dira jasotako eskaera guztiak:

- ▶ **PROPOSAMEN-MOTA 1: LOKALAK**
 - 2 urtetatik 6 urtetarako gaztetxoentzako lokal bat, eta 6-10 urteentzako beste bat.
 - "Atonketa" - Herriko lokalen atontzea.
 - "Kalabazan ludoteka": "Urrats"en lokala izandakoa atontzea eta erabilgarri jartzea ludoteka martxan jartzeko.
- ▶ **PROPOSAMEN-MOTA 2: HAUR PARKEAK**
 - Haur parkean konponketak eta estaltzea.
 - Estalitako haur parke bat ipintzea ahalik eta punturik zentrikoenean.
 - Haur parkeak konpondu eta Gernika parkea estaltzea.
- ▶ **PROPOSAMEN-MOTA 3: KIROL INSTALAZIOAK**
 - Learreta Markinako eskolako "kirol-zelaia"- "patioa" estaltzea eta apaintzea.
 - Institutuko gimnasioan saskibaloiko bi saski ipintzea.
 - Urzabal bulder-skate moldatzea, panel berri bat ezartzea.
 - Polikiroldegiko sarrera atontzea (euria eta haizearekin arazoak) eta ule-lehorgailuak beheko solairuan ipintzea.
 - Kirolddegiko gradetan itxitura bat ezartzea tenperatura aldaketan arazoari aurre egiteko.
 - Futbol zelaiko instalakuntzak hobetzea (zoru labaingarria, gradetan itukinak, argiztapen txarra...).
 - Futbol zelaiko hesiak istea, hesiak konpontzea.
 - Futbol zelaiko aldageletan berogailua jartzea.
 - Futbol zelaiko taberna babestea, pergola bat ezartzea.
- ▶ **PROPOSAMEN-MOTA 4: INGURUMENA**
 - Berriziklaturen ekimenari bultzada ematea eta konpostera lekuz aldatzea eta handitzea.
 - Lehendakari Agirreko zuhaitzen "poda".
 - Herri baratzak jartzea (monte del depósito, detrás río Legaño, zona ikastola, zona Abeletxe...).
 - Sarria erreka errekaren garbiketa egitea (uholdeak izateko arriskua).
- ▶ **PROPOSAMEN-MOTA 5: IRISGARRITASUNA, ZERBITZUAK ETA OBRAK**
 - Berrizbeitia Auzoan aldapa guztian barandila ipintzea.
 - Irisgarritasun arazoak konpondu (azerak txikitu, berritu...) Iturriza eta inguruko kaleetan (Matza, Bidegain...).
 - Beheko bidegorria nagusientzako gimnasia aparatuak.
 - Adinekoentzako Eguneko Zentroa (Centro de Día).
 - Herri guneko merkataritza eta aisi guneeetara hurbiltzeko aparkalekuak eta argiteria publikoa.
 - Autoen abiadura moteltzeko sistemak ezarri Sarrian.
 - Murgoitio "San Juan" auzoan Bidearen eta Baserrietako sarreraren hobekuntza.

Una vez analizadas y clasificadas, las propuestas obtenidas son las siguientes:

- ▶ **TIPO PROPUESTA 1: LOCALES**
 - Habilitar un local para niños/as de entre 2 y 6 años y otro para 6-10 años.
 - Recuperar y habilitar locales de uso público.
 - "Ludoteca Kalabazan": recuperar y habilitar el local previamente utilizado por "Urrats" para su uso como ludoteca.
- ▶ **TIPO PROPUESTA 2: PARQUES INFANTILES**
 - Reparación y cubrición de los parques infantiles.
 - Construcción y adaptación de un parque infantil cubierto, lo más céntrico posible.
 - Mantenimiento y reparación de los parques infantiles y cubrición del parque Gernika.
- ▶ **TIPO PROPUESTA 3: INSTALACIONES DEPORTIVAS**
 - Cubrir y decorar el "campo de futbol"- "patio" de la escuela de Learreta Markina.
 - Colocar dos canastas en el gimnasio del instituto.
 - Mejorar la instalación de Urzabal bulder-skate, colocar un panel nuevo.
 - Acondicionar la entrada al polideportivo (problemas al llover y con viento) y colocar las secadoras de pelo en la planta de abajo.
 - Acondicionar las gradas del polideportivo; cerramiento para hacer frente a los problemas con bajas temperaturas.
 - Reparar instalaciones en campo de futbol (suelos resbaladizos, goteras en gradas, mala iluminación...).
 - Cierre vallas del campo de futbol, arreglo de valla resistente.
 - Calefacción en los vestuarios del campo de futbol.
 - Protección del bar campo de futbol, instalación de una pérgola.
- ▶ **TIPO PROPUESTA 4: MEDIO AMBIENTE**
 - Impulsar la iniciativa Berriziklatu, trasladar y ampliar la zona de compost.
 - Poda de los árboles de Lehendakari Agirre.
 - Huertos urbanos (monte del depósito, detrás río Legaño, zona ikastola, zona Abeletxe...).
 - Limpieza del río de Sarria (peligro de inundación).
- ▶ **TIPO PROPUESTA 5: ACCESIBILIDAD, SERVICIOS Y OBRAS**
 - Colocar una barandilla en la cuesta del barrio Berrizbeitia.
 - Accesibilidad (rebaje de aceras, arreglo de aceras...) Iturriza y calles aledañas (Matza, Bidegain...).
 - Colocar aparatos de gimnasia para personas mayores en el Bidegorri de abajo.
 - Centro de Día para personas mayores.
 - Aparcamientos y alumbrado público para facilitar el flujo de personas a zonas comerciales y de ocio del centro.
 - Lomos de asno en Sarria para reducir la velocidad.
 - Acondicionar la carretera y mejorar el acceso a los caseríos del barrio San Juan en Murgoitio.

► PROPOSAMEN-MOTA 6: DIRU-LAGUNTZA ESKAERA (inbertsioetatik kanpo)

- Lehen hezkuntzan irteerak egiten jarraitu ahal izateko diru laguntza txiki bat.

► TIPO PROPUESTA 6: Solicitud de subvención (no contemplado como inversión)

- Subvención para poder continuar con las excursiones o salidas en Educación Primaria (Learreta-Markina).

7. Hurrengo urratsak

Hurrengo foroa abenduaren 12an izango dela adierazten du aholkularitza enpresako kideak. Tarte horretan udalaren ardua izango da herritarrek egindako proposamenen bideragarritasuna aztertzeko txosten teknikoa prestatzea. Abenduaren 12ko foroan erabakiko dute herritarrek, 60.000 euroko kopururaino iritsiz, guztietatik zein proposamen lehenetsi.

7. Sigüientes fases

El técnico de la empresa consultora indica que la segunda y última sesión de participación se celebrará el 12 de diciembre. Para entonces los servicios técnicos del Ayuntamiento se encargarán de elaborar el informe de viabilidad de las propuestas realizadas por los asistentes. En la sesión del 12 de diciembre, los ciudadanos decidirán qué propuestas se priorizarán para ser ejecutadas, hasta llegar al montante económico de 60.000 euros.

Eranskina: Obra eta jarduerak



Anexo: Obras y actuaciones



BERRIZKO UDALA

Obra eta jarduerak

OBRAS Y ACTUACIONES

Nº ORDEN	OBRAS, PROIEKTUAK ETA ZERBITZUAK	OBRA, PROYECTO O SERVICIO	ALFREKON PRESUPUESTO
	HEZKUNTZA	EDUCACION	
	HAUR RESKOLA: AIRE-EGOKITURAKO MAKINA BERRIA SARRERAN ETA TOLDOA MEKANIZATzea	HAURRESKOLA: MAQUINA DE AIRE ACONDICIONADO EN LA ENTRADA Y TOLDO MECANIZADO	10.000,00
	BEROGAILUEN HODIEN EGOKITZAPENA - LEARRETA MARKINA ESKOLAKO SUGALDEA	ADECUACION CONDUCTOS CALEFACCION COLEGIO LEARRETA MARKINA ZONA DE LA COCINA	7.199,50
	ERRADIADOREEN BERRITZAPENA - LEARRETA MARKINA ESKOLAKO 3 ETA 5 PABILOIA	RENOVAR RADIAADORES EN LAS AULAS ALTAS DE LOS PABELLONES 3 y 5 DEL COLEGIO L. MARKINA	3.599,75
	MARKATU ETA HOBIETU KANPOKO ESKAILERAK - LEARRETA MARKINA ESKOLA	MARCAR Y MEJORAR ESCALERAS EXTERIORES E INTERIORES DEL COLEGIO LEARRETA MARKINA	11.920,25
	HAUR JOLASAK KONPONTZEKO EN PIEZA HORNIDURA	SUMINISTRO PIEZAS DE REPUESTOS DE LOS JUEGOS INFANTILES PARA SU REPARACION (A MBISA)	6.050,00
	LEARRETA MARKINA IKASTETXEKO 8. ERAIKINEAN KOMUNETAKO ZOLADURA ALDATZEA	SUSTITUCION DE PAVIMENTO DE LOS ASEOS DE LOS BAÑOS DEL EDIFICIO 8 DEL COLEGIO LEARRETA MARKINA	4.200,23
	LEARRETA MARKINA IKASTETXEKO ERAIKINETARAKO BIDEAK ESTALTZEA	CUBRIR PASOS DE LOS PABELLONES	
	IRISGARRITASUNA ETA OBRAK	ACCESIBILIDAD Y OBRAS	
	M. MATURANA ETORBIDEAN ESPALOI JARRAIPENA * O SEKTORE * URBANIZAZIO BERRITIK HASITA	CONTINUACION DE ACERA EN M. MATURANA ETORBIDEA DESDE LA NUEVA URBANIZACION "SECTOR-2"	
	LEARRETA MARKINA 8-KO ERAIKINAREN AURREALDEAN ESPALOA ERAKITZEA	CONSTRUCCION DE ACERA EN EL FRENTE DEL EDIFICIO DE LEARRETA MARKINA Nº 8	
	ESPALOI ZATI BATZUETAKO BALDOSA ZOLADURETAN LABAN EZ EGITEKO TRATAMENDUA	TRATAMIENTO ANTIDESLIZANTE EN VARIOS TRAMOS DE ACERA CON PAVIMENTO DE BALDOSA.	2.596,45
	KANPOSANTU SARBIDEKO INSTALAZIOAK EGOKITZEA ETA BERRITZATZEA	ACONDICIONAMIENTO Y RENOVACION DE INSTALACIONES EN EL CAMINO DE ACCESO AL CEMENTERIO	0,00
	HIRIGUNE ETA INDUSTRIALDEAN PINTURA BERRITZTEKO LANAK	REPOSICION DE PINTURA VIAL EN VARIAS ZONAS DEL CASCO URBANO Y POLIGONO INDUSTRIAL.	9.339,50
	SARRIA ESKOLA ZAHARREKO ZONALDEAREN ITXIERA PERIMETRALA	CIERRE PERIMETRAL DE LA ZONA DE LA ANTIGUA ESCUELA DE "SARRIA"	5.033,60
	KIROLDEGI EREMUKO ESKOLA SARRERAREN BERRIKUNTZA	RENOVACION DE PUERTA EXTERIOR DE ACCESO AL COLEGIO DESDE ZONA DEL POLIDEPORTIVO	
	ABELETXE 6 ETA 20 EREMUKO ESKAILERETAN ESKUDELAK JARTZEA	INSTALACION DE PASAMANOS EN DIVERSAS ESCALERAS DE LA ZONA DE ABELETXE AUZOA Nº 6 y 20	3.003,22
	ABELETXE 6 EA 20AN ESKALEREN GRADA PREFABRIKATUAK ORDEZKATZEA	SUSTITUCION DE GRADAS PREFABRICADAS DE ESCALERAS EN ABELETXE AUZOA Nº 6 y 20	7.002,95
	AISIA, KULTURA ETA KIROLA	OCIO Y DEPORTE	
	BERRIZBURUKO 1. FASEA: HAUR PARKEA, 3. ADINEKO PARKEA, ATSEDEEN GUNEAK	FASE 1 DE BERRIZBURU: PARQUE INFANTIL, DE TERCERA EDAD Y ZONAS DE DESCANSO	70.000,00
	FUTBOL ZELAIKO GRADETARAKO SARRERAREN ZOLADURA KONPONTZEA	REPARAR SOLERA DE ENTRADA A LAS GRADAS DEL CAMPO DE FUTBOL.	
	BOULDER SKATEAN HOBEKUNTZAK	MEJORAS EN BOULDER SKATE	4.500,00
	SKATE PARKEA TXUKUNDU ETA HOBIETU-ESTALTZEA ERE?	ADECENTAR Y MEJORAR EL PORQUE DE SKATE - TECHADO?	
	KIROLDEGIKO GIMNASIORAKO EKIPAMENDU BERRIA	NUOVO EQUIPAMENTO PARA EL GIMNASIO DEL POLIDEPORTIVO	
	URIBE SOZIEDADE AURREKO KOLUNPIOEN ESERLEKUA ALDATZEA (TXINTXAUNEN BI ESERLEKU)	REPOSICION ASIENTOS JUEGO COLUMPIOS EN SOCIEDAD DE URIBE (Dos asiento de los columpio,...)	618,79
	JOLAS EREMUETAN ZOLADURA ALDATZEA ETA ORAINGOAN JARRAIA JARTZEA	RENOVACION DE PAVIMENTO AMORTIGUADOR EN VARIAS ZONAS DE JUEGOS POR PAVIMENTO CONTINUO	42.987,62
	ANDIKOAN JOLAS EREMU BERRIA-URBANIZAZIOA	NUOVA ZONA DE JUEGOS EN ANDIKO-URBANIZACION	
	SARRIAKO ESKOLAN JOLAS EREMU BERRIA-	NUOVA ZONA DE JUEGOS EN LA ESCUELA DE SARRIA	
	LEGAÑOKO IBILBIDE EKOLOGIKOARI JARRAIPENA EMAN - KONBETURANTZ ETA OLABETIK KALEJARRANTZ	DAR CONTINUIDAD AL ITINERARIO ECOLOGICO DE LEGAÑO HACIA EL CONVENTO Y HACIA LA CALEJA	
	PROBALEKUKO KARRAJOA ESTALTZEA (ERAJILERA ANITZA-EGURAI DI TXARRA)	CUBRIR EL CARRAJO DEL PROBADERO (UTILIZACION POLIVALENTE- MAL TIEMPO)	
	GARRAIO PUBLIKOA	TRANSPORTE PUBLICO	
	URIBE, EITUA, ITURRITZA, SAN LORENTZO ... AUTOBUS GELTOKIAK INSTALATU (6 GERATOKO)	URIBE, EITUA, ITURRITZA, SAN LORENTZO ... PARADAS DE AUTOBUS (6 APEADEROS)	70.000,00
	URIBE AUTOBUS GELTOKI EREMUAN ARGIAK INSTALATZEA (HORNIDURA BAKARRIK)	INSTALACION DE ALUMBRADO PUBLICO EN LA ZONA DE LA PARADA DE BUS DE URIBE (solo suministro)	4.434,65
	SARRIA ESKOLA ZAHARREAN ARGIAK INSTALAZIO ELEKTRIKOA ETA ENTXUPEAK	INSTALACION ELECTRICA DE ALUMBRADO Y ENCHUFES EN LA ANTIGUA ESCUELA DE SARRIA	0,00
	KANPOSANTU SARBIDE NAGUSIAREN LAUTADAN ARGIAK INSTALATZEA (BEHARREZKO LANAK)	INSTALACION DE ALUMBRADO PUBLICO EN EXPLANADA ENTRADA PRINCIPAL CEMENTERIO (trabajos necesarios)	3.122,71
	EITUA INDUSTRIALDEAN ARGIAK ORDEZKATZEKO EKIPU ETA LANPARA HORNIDURA	SUMINISTRO DE LAMPARAS Y EQUIPOS PARA SUSTITUCION EN LAS LUMINARIAS DE EITUA INDUSTRIALDEA	2.873,75
	JARDUERAK ERAIKUNTZA BATZUETAN	ACTUACIONES EN EDIFICIOS VARIOS	
	UDALETXEKO KANPOALDEKO LEIHO BATZUETAN PINTURA LANAK	TRABAJOS DE PINTURA EN VARIAS VENTANAS EXTERIORES DEL EDIFICIO DEL AYUNTAMIENTO	517,86
	MUSIKA ETXEA: UR BEROGAILUA, MAMPARA, DUTXA ITXIERA, POSTONTZIA ...	MUSIKA ETXEA: CALENTADOR AGUA, MAMPARA CIERRE DUCHA, BUZON ...	2.242,69
	ANBULATEGI ZAHARREAN BARNE EGOKITZAPENAK...	ACTUACIONES EN EL INTERIOR DEL AMBULATORIO VIEJO	
	JUBILATUEN ETXEAN EGOKITZAPENAK-SUGALDEA...	ACTUACIONES EN EL HOGAR DEL JUBILADO- COCINA...	
	GAZTETXE-BOULDER ERAIKUNTZAN KONPONKETAK	ARREGLOS EN EL EDIFICIO GAZTETXE-BOULDER	
	UR HORNIKUNTZA ETA BILTEGIAK	ACTUACIONES EN ABASTECIMIENTO DE AGUAS Y EN LOS DEPOSITOS:	
	ABONATUEN UR IRAKURKETA KONTADORE ALDAKETA (75 UNITATE, MOTA EZBERDINAK)	REPOSICION DE 75 UNIDADES DE CONTADORES DE LECTURA DE AGUA DE ABONADOS (Varios tipos)	4.474,34
	OIZETXEBARRIETA ZUNDAKETA ETXEDAN UR GARBIKETA HUSUKETA AUTOMATIZATZEA	AUTOMATIZACION DEL DESAGUE DE LIMPIEZA DE AGUA EN LA CASETA DEL SONDEO "OIZETXEBARRIETA".	2.964,50
	UR HORNIKUNTZA HODIEN DESBIDERAKETA ETA BERRIKUNTZA, SARRIGOITI KONTADOREAK	RENOVACION Y DESMIO TUBERIA DE ABASTECIMIENTO AGUA Y BATE CONTADORES EN "SARRIGOITI".	6.050,00
	BETZUEN HARTUNEAREN GOALDEAN UR EDANGARRIA BILTZEKO HODI BERRIA	NUOVA CONDUCCION DE RECOGIDA DE AGUA POTABLE AGUAS ARRIBA DE LA CAPTACION "BETZUEN".	0,00
	SARRIGOITIN EURI UREN HODI KONPONKETA	RENOVACION DE LA TUBERIA DE AGUAS PLUVIALES EN "SARRIGOITI"	0,00
	NEKAZAL BIDEAK-AUZOAK	ACTUACIONES EN CAMINOS RURALES:	
	EITUA-EREÑA BIDEA BERRASFALTATZEA, ZERBITZU SARE BERRIAK JARTZEA, EGOKITZAPENA	AMPLIACION, ACONDICIONAMJL, NUEVAS REDES SERVICIOS Y REASFALTADO CAMINO "EITUA-EREÑA"	207.000,00
	EITUA BIDETIK BOLIÑATE BASERRIRA ARTEKO BIDEAN SLURRY ASFALTO TRATAMENDUA	TRATAMIENTO ASFALTICO CON SLURRY EN EL CAMINO DE EITUA HASTA EL CASERIO "BOLIÑATE"	5.614,40
	GOMENDIOURRUTIA BASERRIRA DOAN HORMIGOZKO ZOLADURAN LABAN EZ EGITEKO TRATAMENDUA	TRATAMIENTO ANTIDESLIZANTE EN SOLERA DE HORMIGON DEL CAMINO AL CASERIO GOMENDIOURRUTIA	6.043,95
	OKANGO AUZOKO UGARTEZABALA BASERRI SARBIDEAN ZOLADURA EGOKITZEA	ACONDICIONAMIENTO DE PAVIMENTO EN EL CAMINO DE ACCESO AL CASERIO UGARTEZABALA Bº OKANGO	12.164,28
	OKANGO AUZOKO ASUA BASERRIAREN SARBIDEAN ZOLADURA KONPONTZEA	ACONDICIONAMIENTO DE PAVIMENTO EN EL CAMINO DE ACCESO AL CASERIO ASUA EN Bº OKANGO	11.126,83
	SAGARMINAGA EREMUKO BIDEAN ZOLADURA KONPONTZEA (ZALDIRAKO TREN GELTOKIA)	REPARACION DE PAVIMENTO EN EL CAMINO ZONA SAGARMINAGA (Estación de tren de Zribor)	2.334,08
	ARGITERIA AUZOETAKO ZENBAIT LEKUTAN UNITATEA	ALUMBRADO EN ALGUNOS PUNTOS DE LOS BARRIOS. UNIDAD	2,000
	NEKAZAL BIDEETAN SEÑALEZTAPENA ETA MUGAK (15 PUNTU)	SEÑALIZACION Y RESTRICCIONES-LIMITACIONES EN LAS ENTRADAS DE LOS CAMINOS RURALES (15 puntos)	11.986,25
	ZUBIAZPIKOA-BOLIÑATE SARBIDEAN ZOLADURA EGOKITZEA	ACONDICIONAMIENTO DE PAVIMENTO EN EL CAMINO DE ACCESO ZUBIAZPIKOA-BOLIÑATE	10.000,00
	SARRIAKO ESKOLETAKO BIDEAREN KONPONKETA	ARREGLIAR EL CAMINO DE LA ESCUELA DE SARRIA	
	BIDOEETAN ABIADURA MOTELTZEKO NEURRIAK - (MURGOITIKO "LOMO DE ASNO" SISTEMA. UNITATEA	ACCIONES PARA REDUCIR LA VELOCIDAD "LOMOS DE ASNO DE MURGOITIKO. UNIDAD	1.500,00
	AURREKONTUA GUZTIRA:	TOTAL PRESUPUESTOS:	554.601,18